



Andoaingo Udala



---

## Hainbat eragozpen Baltzunik Etenetara bitarteko bidean

**Andoainen, 24-01-05.-** Urtarrilaren 3an Gipuzkoako Foru Aldundiak Baltzunik Etenetara bitarteko bidearen egokitzapen lanei hasiera eman zion. Lan hauen helburua, ur etenak, arekak eta bidea bera behar bezala egokitzea izango da, baita Etenetan bertan lurra hobetzea ere.

Baltzunik Etenetara bitartean dauden 8600 metro inguruan burutuko dira lanak, eta hilabete inguru iraungo dutela estimatzen da. Hondeatzaile bat ibiliko da aipatutako lan hauek egiten, eta oinezkoentzat zein txirrindularientzat ez du eragozpenik sortuko, baina astelehenetik ostiralera eragozpenak egon daitezke gune batzuetan autoz pasatzeko.

Azken puntu hau kontuan hartua izatea eskatzen du Udalak.